

Eskuz esku ibili diren liburuak

IRENE ELORZA. Estreinatuta berri dugun urteak atzera begiratu eta aurreko urteak emandakoari erreparatzeko aukera ematen du. Horrela egin dute Azkoitiko eta Azpeitiko Udal liburutegietan. 2009an gehien mailegatu dituzten liburuen zerrendak eman dituzte jakitera, eta ez dago sorpresa handiegirik: Kirmen Uribe, Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi eta Stieg Larsson idazleen lanak izan dira irakurleek gehien eskatu dituztenak.

Azkoitiko Aizkibel Udal Liburutegian helduentzako irakurketen artean Bilbao-New York-Bilbao (Elkar, 2008) izan da euskarazko libururik irakurriena. Kirmen Uriberen eleberraren atzetik, Anjel Lertxundiren Zoaz infernura, laztana (Alberdania, 2009) liburua mailegatu dute irakurleek.

Gaztelerazko liburuen artean, Stieg Larsson suediarren Millenium izeneko trilogia gailendu da beste liburuen artean. Los hombres que no amaban a las mujeres (Män som hatat kvinno, Destino, 2008) eta La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina (Flickan som lekte med elde, Destino, 2008), bildumako lehen bi eleberririk sailkatu dira urteko zerrendaren lehen postuetan. Ondoren, beste trilogia bateko liburua izan da irakurleen eskuetan gehien ibili dena: Stephenie Meyer idazlearen Crepúsculo (Twilight, Alfaguara, 2006).

Haurren atalean, berriz, Kroko eta lagunak (Jo Lodge, Ibaizabal, 2008); Txomin komunean (Liesbet Slegers, Ibaizabal, 2003); eta Katalin udan (Liesbet Slegers, Ibaizabal, 2009) ipuinak izan dira irakurketa arrakastatsuenak. Gaztelerazko liburuei dagokionez, Lunnis: la Lunniclopedia (Planeta, 2009); Nuestros amigos los bomberos (Dieter Busch, Elfos, 1999); eta ¿Qué hora es? (Annie Kubler, Planeta, 2006).

Bazkide kopuruak gora

Azkoitiko Udal liburutegiak 24.767 erabiltzaile izan zituen iaz. Horietatik 6.425 haurrak izan dira, eta gainontzekoak, 17.770, helduak. Sexuen arabera banaketa eginez gero, emakumeek erabiltzen dute gehien kultur zerbitzu hau. Izan ere, 14.023 emakumek (%57) eta 10.102 gizonek (%43) gozatu dute Aizkibelek eskaintzen dituen baliabideetaz. Gainera, erabiltzaileek 642 kontsulta egin zituzten telefonoz iaz.

Bestalde, pasa den urtean 280 lagun egin ziren bazkide; haietatik 144 emakumeak eta 133 gizonak. Hala, egun 2.361 bazkide ditu Udal liburutegiak. Bazkide berrien artean, 186 heldu, 91 haur eta hiru erakunde daude.

Mailegu kopuruari dagokionez, 18.869 ale mailegatu zituzten iaz, 12.057 helduen sailean eta 6.778 haurren eta gazteen atalean. Gainera, Azkoitiko liburutegiko arduradunek jakitera eman dutenez, 34 mailegu egin zituzten beste liburutegietara edo erakundeetara.

Atxaga eta Larsson

Azpeitiko Udal Liburutegiak 2009an gehien mailegatutako liburuen zerrendak osatu ditu eta, Azkoitiko kasuan bezalaxe, idazle ezagunek hartu dituzte lehen postuak. Euskarazko eleberrigintzari dagokionez, Bernardo Atxagaren Zazpi etxe Frantzian (Pamiela, 2009) nobela izan da irakurleek gehien hartu duten liburua; Lertxundiren azken eleberria da zerrendan bigarrena.

Gaztelerazko liburuetan, Azpeitian ere Larssonen trilogiaren lehen liburua kokatu da lehen postuan, eta Toti Martínez de Lezea idazlearen La flor de la argoma (Erein, 2008) izan da bigarren liburu mailegatuena. Umeen literaturaren kasuan, pertsonaia klasikoak eta garaikideak nahasten dira gehien irakurritakoen zerrendetan; hala nola, Bubu, Hiru Mosketariak, Junie B eta Olentzero.